ikaztegietako etxeak


AIUTU


AIUTU BERRI


AIUTU GAIN


ALDABALDE


APAIZETXEA (ERRETORETXE)


ARIÑE (TOMASENEA)


ARÓZTEGI


ARTANO


BEIDAKAR


BENTA (ERBETAGOIKOA)


BENTATXIKI


BENTZUNTZIBAR


BION AMETSA


EGUN SENTIA


ELIZALDE


ELORRI


ERBETAAZPI


ERBINEA


ETXE ALAI


ETXEBERRI (VILLA MARIA)


EZKIAGA (MONTES)


GAIN ALAI


GARINENEA


GOIKOETXEA


GOISORO


GOISORO


GOISORO


GOIZ EGUZKI


GURE PAKEA


ITURRIOTZ


KUTTUNRU BERRI


LARRETAKO BORDA


LARRUNBE


LARRUNBEGOIKO


LARRUNBETXIKI (ERROTA)


LEKUEDER


LIZARTZA


LOPERDIBERRI


LOPERDIZAR


LULUAGABEKOA (BEKOETXEA)

LULUAGAGOIKOA (GOIKOETXEA)

MARTAENEA

MUÑOA

MUÑOA BERRI

MUÑONDOBERRI

MUÑONDOZARRA

OLLAKINDEGI

OSTATUBERRI

PILLAREKO AMAREN ERMITA

PRESALDEA

SAN LORENTZO ELIZA

SEROERTXEA

TOKI ALAI

TXORRONEA

UDALETXEA (OSTATUZARRA)

URBIDEKO ERROTA

ZAISOR

ZUBIAURRE

IKAZTEGIETAKO UDALA

IkerMap

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN SAILA
Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ORDENACION DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE
Dirección de Ordenación del Territorio.

IKAZTEGIETAKO MAPA
1. argitalpena: 1999 apirila
1/5.000 eskala • UTM koordenatuak
Sestrakurtsen distantzielkatasuna: 5 m

Lyskar: IkerMap, Kartografia eta Lurralde Ikerketak
Lanaren arduraduna: Imanol Goikoetxea
Normalizazio toponimikoa: Aitor Lete eta I. Goikoetxea

Lege Gordailua: SS-399/99

IKAZTEGIETA

HERRIKO MAPA 1/5.000

Ikaztegietako herrigunea.

Tamaina txikiko udalerria da IKAZTEGIETA, bere izaera mistoak bereizten duena, landatarra eta hirtarra-industriala baita. Bere hedadura txikia da (2 km² baino gehixeago) eta bertako populazioa ez da 400 biztanlera iristen. Herrigunea, lurraren goragune bikil bat aprobetxatuz, *Oria ibaiaren* meandro zabal baten gainean kokatua dago, *Araiarko* azken mendiadarretan.

Trenbideak eragin handia izan du Ikaztegietaren garapenerako.

Ikaztegietako herrigunea, Oria ibaiaren ibilbidean zehar.

IKAZTEGIETAREN berri ematen duen lehen dokumentua 1374. urtekoa da, Tolosarekin bat egin zuen urtekoa. 1615. urtean hiribilduaren titulua eskuratu zuen, eta geroago Alegia eta Orendainekin bat egin zuen Aizpuruaren Batasunean. Batzar Nagusi eta Partikularretara ordezkariak bidaltzeko. Batasun hori 1824 eta 1846 artean utzi egin zuen. 1960. urtean Orendain eta Baliarrainekin elkartu zen Iruerrieta udalerria eraturik, jadanik deseginda dagoena.

Oria ibaiaren koaternario depositua

Herriko udal mugartea *Oria* ibaiaren eta bere *ibaiadar* baten (*Aldaba* edo *Ugaran errreka*) ibilbidearekin bat dator. Bi ibaiek Leitzako failak markatzen duen norabidearri zehatzmehatz jarraitzen diote, eta honela IKAZTEGIETA beronen Hegoaldean geratzen denez gero, bere materialak Oizko Unitatea delakoan barne hartuta daude, zona honetan karbonatazio maila desberdina duten karari-bankuekin tartekatutako margez osatutako Goiketazikoko flysch-ean hain zuzen ere. *Oria ibaiaren* talweg-ean, gora-behera tektonikoa zigilatuz eta flysch-a estaliz koaternarioko depositu alubial bat dago, hondo laua duen harana eratzen duena, non industri poligonoak eta egoitzarako eraikin batzuk kokatuta dauden. Udalerriko puntururik garaiena *Largarate* (garai bateko baserria) izeneko ingurua da (315 m), eta baxuena *Osinbarreko zubia* (94 m). Gaur egun jendea bizi den baserririk garaiena *Luluagagoikoa* da (246 m).

Bentzuntzibar industrialdea, leku laua (garai bateko soro eta baratzak) probetxatuz kokatzen da

Luluagagoikoa -Ikaztegietan dagoen baserririk garaiena- eta Lulugabekoa.

Oria ibaia udalerrian ibaibide nagusia da, eta bertara isurtzen dute *Intxurre* mendiko Hegoaldeko urak jasotzen dituen *Aldabaerrekak* eta beste zenbait erreka txikik (*Larrunberreka, Errekatxulo, Osinbarerreka eta Espirituerreka*).

Landarediari dagokionez, lau landare-formazio ikus daitezke: belardiek eta labore atlantiarrek, baserriari loturik, lurraldearen zatirik handiena hartzen dute. Hedaduraren arabera, bigarren formaziorik garrantzitsuena koniferen baso-sail landatuetatik eratortzen dena da, batez ere *Pinus radiata*rekin. Bi formazio horien artean, eta inguruko landarediri potentzialaren lekuko gisa, harizti azidofilo eta harizti-baso misto atlantiarreko orban txikiak.

Baserriari loturik dagoen paisaia tipikoa: belardiak eta labore atlantiarrak

Azkenik, *Oria ibaiaren* ertzetan haltzaldi kantauriarreko zati txikiak.

IKAZTEGIETAK udalerri industrializatuetan komunak diren egitura demografikoetatik parte hartzen du, adin-taldeen araberako populaziaren banaketan dituen portzentaiak eskualdeko batezbestekoaren antzekoak izanik, beraz tamaina txikia izan arren bere populaziora batez ere hirtarra delako. Hala ere, badude zenbait adierazgarri demografiko duela gutxi landatarra zela gogoarazten dutenak, esate baterako gizonezkoen kopurua emakumezkoena baino handiagoa dela

Ikaztegieta eta Iruerrietako (Baliarrain + Orendain + Ikaztegieta) biztaniegoaren eboluzioa azken 100 urtetan

Ikaztegietako herrigunea, Oria ibaiaren ibilbidean zehar.